

OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun Zenbakia: **43**
Nork aurkeztu du: **Ekologistak Martxan Bizkaia**
Aurkezpen data: **2022/02/08**

Sugerencia N°: **43**
Presentada por: **Ekologistak Martxan Bizkaia**
Fecha de presentación: **08/021/2022**

IRADOKIZUNAREN LABURPENA

Iradokizun orokorrak:

1. Hirigintza planetan jasotako proiektuak abiaraztea bultzatzea eta bermatzea proposatu da, bai eta proiektu horiek planetan jasota dauden bezala egitea ere.
2. Eskatu da planak zenbateraino bete diren ebaluatzeko, planak ez betetzearen arrazoiak aztertzeko eta horiek betetzeko tresnak proposatzeko.

Artxandako Metropoli parkeari buruzko iradokizunak:

3. Metropoli parkeetan egiten diren planek eta ekintzek LAGek, LPPak eta HAPOek jasotako proposamenak betetzeko eskatu da, eta horretarako jarraipen tresnak garatu behar ko dira.
4. Artxanda Aktibatzeke Planean egokiak diren aldaketak ebaluatzea eta egitea proposatu da, Bilboko eta Sondikako Udalek bultzatuta. Plan hori ez da Bilboko LPPak eta HAPOak jasotako plan berezia.
5. Artxandarako plan berezi bat sortzea planteatu da, Bilboko LPPan eta HAPOan proposatutakoa beteta (hobetzeko neurriak, eragin negatiboak ezabatzea, ingurumenaren hobe-kuntza...).

RESUMEN DE LA SUGERENCIA

Sugerencias generales:

1. Se propone impulsar y garantizar la puesta en marcha de los proyectos recogidos en los planes urbanísticos, y que se realicen de la manera recogida por dichos planes.
2. Se pide evaluar el grado de cumplimiento de los planes, analizar las causas de su incumplimiento, y proponer mecanismos para su cumplimiento.

Sugerencias relacionadas con el Parque Metropolitano de Artxanda:

3. Se plantea que los planes y acciones que se realicen en los Parques Metropolitanos cumplan las propuestas recogidas en las DOT, el PTP y los PGOU, para lo cual se deberían desarrollar mecanismos de seguimiento.
4. Se propone evaluar y realizar los cambios adecuados en el Plan de Activación de Artxanda, impulsado por los Ayuntamientos de Bilbao y Sondika, que no es el plan especial que recogen el PTP y el PGOU de Bilbao.
5. Se plantea la elaboración de un plan especial para Artxanda que cumpla lo propuesto en el PTP y en el PGOU de Bilbao (medidas de mejora, eliminación de impactos negativos, mejora ambiental...).





6. Artxandako Metropoli parketik ordenatu nahi diren guneeetan dauden eragin guztiak ezabatzeko eskatu da (bereziki dauden abandonatutako zabortegeiak), bai eta Metropoli parke horretan zabortege berriak egiteko baimenik ez emateko ere.
 7. Herritarrek planetan parte-hartzeko eskatu da (jendaurrean jarri, udal mailako aholku berdeak...).
 8. Artxandako plan bereziak bere gain Cabras menditik Ganguren mendiraino hartzeko eskatu da (Sondika, Loiu, Zamudio, Bilbo, Etxebarri, Galdakao, Lezama eta Larrabetzu).
 9. Parte hartzen duten erakunde guztiek lankidetzan aritu behar dira eta bere artean koordinatu behar dira, hartutako neurriak eta planak gauzatu ahal izateko.
 10. Artxandako gailurreria guztia eremu bakoitzaren ezaugarrien arabera banatzeko eskatu da. Esparruak barne hartu beharko ditu Artxandako erlaitza eta C.E.04 igarobide ekologikoa, eta oinarritzak da tokiko landaretza potentziala berreskuratzea.
 11. Igarobide ekologikoen kudeaketaren helburuak kontserbazioa eta tokiko landaretza berrorenatzea dira.
 12. Indarreko LPPko 25. Eragiketa Estrategikoa (Artxandako parkea) eguneratzeko eskatu da, igarobide ekologikoei erreferentzia gaineratuta.
- Pagasarriko Metropoli parkeari buruzko iradokizunak:**
13. Pagasarri mendiko Plan Berezia zenbateraino bete den baloratzeko eskatu da, baita plana betetzeko beharrezko jarduketan proposatzeko ere.
6. Se pide que en las zonas que se quieren ordenar del Parque Metropolitano de Artxanda se eliminen todos los impactos existentes, en especial los vertederos abandonados existentes, y que no se den permisos para nuevos vertederos en dicho Parque Metropolitano.
 7. Se requiere que los planes cuenten con la correspondiente participación ciudadana (exposición pública, consejos verdes a nivel municipal...).
 8. Se reclama que el plan especial de Artxanda abarque desde el monte Cabras hasta el monte Ganguren (municipios de Sondika, Loiu, Zamudio, Bilbao, Etxebarri, Galdakao, Lezama y Larrabetzu).
 9. Se requiere colaboración y coordinación entre todas las instituciones implicadas para poder llevar a cabo las medidas y planes adoptados.
 10. Se pide realizar la zonificación de todo el cordal de Artxanda según las características de cada zona. Entienden que el ámbito debe incluir la cornisa de Artxanda y el corredor ecológico C.E.04, y que la recuperación de la vegetación potencial autóctona es fundamental.
 11. Se manifiesta que los objetivos de la gestión de los corredores ecológicos deben ser la conservación y la regeneración de la vegetación autóctona.
 12. Se solicita que la Operación Estratégica 25 (parque de Artxanda) del PTP vigente se actualice añadiendo la referencia a los corredores ecológicos.
- Sugerencias relacionadas con el Parque Metropolitano de Pagasarri:**
13. Se solicita hacer la valoración del grado de cumplimiento del Plan Especial del Monte Pagasarri y que se propongan actuaciones para su consecución.





- | | |
|--|--|
| <p>14. Indarreko LPPko <i>Pagasarri-Ganekogortako ingurunearen birbalarizazioa</i> (27. <i>Eragiketa Estrategikoa</i>) eguneratzeko eskatu da, bai eta LPPko berrikuspenean zehaztutako C.E.05 eta C.E.06 igarobide ekologikoak sartzea ere.</p> <p>15. Eremu guztiaren Plan Berezia premiaz sortzeko eta epeak jarrita ezartzeko eskatu da.</p> <p>16. Eremuko Baso Plana sortuko da, eta horren ardatza tokiko landaretza berreskuratzea izango da.</p> <p>17. Pagasarri-Ganekogorta mendigune osoa ordenatzeko eskatu da, dagoeneko jasota dauden udalerriez gain (Bilbo, Alonsotegi, Arrankudiaga, Ugao-Miraballes eta Arrigorriaga) Güeñes, Gordexola, Okondo eta Laudio ere egongo dira.</p> <p>18. Pagasarri-Ganekogorta mendigune osoa eremu bakoitzaren ezaugarrien arabera banatzeko eskatu da. Esparruak barne hartu beharko ditu C.E.05 eta C.E.06 igarobide ekologikoa, eta oinarritzak da tokiko landaretza potentziala berreskuratzea.</p> <p>19. Parte hartzen duten erakunde guztiak bere artean koordinatu behar dira proposamenak gauzatu ahal izateko.</p> <p>20. Herritarrek planetan parte-hartzeko eskatu da (jendaurrean jarri, udal mailako aholku berdeak...).</p> <p>21. Pagasarri-Ganekogorta mendigunea, oro har, kanpo geratzeko uzteko da, energia berriztagarrien eta, bereziki, aprobetxamendu eolikoko aprobetxamendu gune gisa.</p> | <p>14. Se pide actualizar la <i>Operación Estratégica 27 Revalorización ambiental del Pagasarri-Ganekogorta</i> (del PTP vigente) e incluir los corredores ecológicos C.E.05 y C.E.06 definidos en la revisión del PTP.</p> <p>15. Solicitan iniciar urgentemente la elaboración del Plan Especial de todo el espacio e implementarlo, fijando los plazos.</p> <p>16. Elaborar el Plan Forestal de la zona, siendo la recuperación de la vegetación autóctona el eje fundamental del mismo.</p> <p>17. Se reclama que se ordene todo el macizo Pagasarri-Ganekogorta, por lo que piden añadir a los municipios ya recogidos (Bilbao, Alonsotegi, Arrankudiaga, Ugao-Miraballes y Arrigorriaga) los municipios de Güeñes, Gordexola, Okondo y Laudio.</p> <p>18. Se pide definir la zonificación de todo el macizo Pagasarri-Ganekogorta según las características de cada zona. Entienden que el ámbito debe incluir los corredores ecológicos C.E.05 y C.E.06, y que la recuperación de la vegetación potencial autóctona es fundamental.</p> <p>19. Se requiere la coordinación entre todas las instituciones implicadas para poder llevar a cabo las propuestas que se adopten.</p> <p>20. Se requiere que los planes cuenten con la correspondiente participación ciudadana (exposición pública, consejos verdes a nivel municipal...).</p> <p>21. Se solicita que el macizo del Pagasarri-Ganekogorta quede excluido, en su conjunto, como zona de aprovechamiento de energías renovables y, en especial, del aprovechamiento eólico.</p> |
|--|--|

IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. LPP bat 16 urterako plan estrategikoa da, eta bertan denbora tarte horretan eremu horretan aurreikusitako proiektu guztiak jasotzen dira. Plan horretan jasotako proiektuak lehentasunaren, aukeren eta sortutako

CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

1. Un PTP es un plan estratégico con un alcance de 16 años donde se recogen aquellos proyectos previstos en el área funcional para ese periodo de tiempo. La ejecución de los





premien arabera sustatuko dituzte administrazio publikoek.

LPPko dokumentuak Ekonomia eta Finantza azterlan bat eta Egikaritze Programa bat barne hartzen ditu. Bertan, proposamenak baloratzen dira eta 4 urterako tartetan programatzen dira. Hala ere, proposamen gehienak betetzea politika sektorialetan eskumen propioak dituzten hainbat erakunde eta erakunderen lehenetasun eta aurrekontuen arabera da.

proyectos recogidos en él depende del impulso de las administraciones públicas según las prioridades, las oportunidades y las necesidades surgidas.

El documento del PTP incluye un Estudio Económico-Financiero y un Programa de Ejecución donde se valoran las propuestas y se programan en etapas de 4 años, si bien el cumplimiento de la mayoría de las propuestas depende de las prioridades y presupuestos de distintos entes y organismos con competencias propias en políticas sectoriales.

2. LPParen araudiaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, LPPan aurreikusitakoa eta zehaztutakoa zenbateraino bete den egiaztatzeko, Egiaztatze Memoria bat egingo da, lau urtero. Gainera, Memoria horretan zehaztutako zenbateraino bete den jasoko da eta, hala badagokio, hautemandako desorekak arintzeko edo erreformatzeko beharrezkoak diren proposamenak.
2. En el artículo 8 de la normativa del PTP se establece que, a fin de verificar el grado de cumplimiento de las previsiones y determinaciones del PTP, se elaborará una Memoria de Verificación cada cuatro años. Además, se dispone que en dicha Memoria se expondrá el grado de cumplimiento de las determinaciones y, en su caso, las propuestas necesarias en orden a paliar o reformar los desajustes que se hubiesen identificado.
3. *Lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren* helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek sortzen eta onesten dituzten lurralde eta hirigintza plangintza onesteko prozedura arautzea. Hori lortzeko oinarritzkoa izango da izapideak arrazionalizatzea, izapideen prozedura sinplifikatzea eta izapideak aldi berean gauzatu ahal izatea; eskumena duten administrazioek lankidetzan eta koordinazioan aritzea; herritarrek parte hartzea eta jendaurreko informazioa izatea eta genero ikuspegia txertatzea.
3. El Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística tiene por objeto regular el procedimiento de aprobación del planeamiento territorial y urbanístico que elaboren y aprueben las Administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, basándose para ello en los principios de racionalización, simplificación procedimental y simultaneidad de trámites; cooperación y coordinación entre las Administraciones competentes; participación ciudadana e información pública e integración de la perspectiva de género.
4. Artxanda Aktibatzeke Plana gorabehera, Artxandako dagoeneko zehaztu da Artxandako herrigunea eta metropoli parkea bateratzen dituen eremua. Antolamendu xehatua plan berezien bidez garatuko da.
4. Independientemente del Plan de Activación de Artxanda, ya se ha definido el ámbito de compatibilización de la zona más urbana del núcleo de Artxanda y el parque metropolitano. La ordenación pormenorizada se desarrollará mediante planes especiales.
5. LPParen arabera Metropoli eta Ibai parkeak plan berezien bidez ordenatu behar dira. Plan horiek zehaztu behar dute eremu osoa zonatan nola banatuko den, eta ezarri behar-
5. El PTP determina que los Parques Metropolitanos y Fluviales tienen que ordenarse mediante planes especiales que deben definir la zonificación de todo el ámbito y establecer el





ko dituzten zeintzuk diren babes maila, erabilera egokiak eta onargarriak eta debekatutakoak. Era berean, LPParen arabera babes bereziko eta ingurumen hobekuntzako eremutzat jotako eremuen antolamendua errespetatu egin beharko da plan berezian jarduketak eta gidalerroak proposatzen direnean.

Metropoli parkeak ordenatzen dituzten plan berezientzako LPPak ezartzen dituen helburuen artean hurrengoak daude: eremuko ezaugarri naturaletan eragin negatiboa eta galerak eragin ditzaketen alderdiak bideratzea, eta dauden ingurumeneko eragin negatiboak ezabatzeke plan zehatza abiaraztea.

6. BFAk ez du zabortegetako baimen eta lizentziarik ez kudeatzen eta ez ematen. Aintzat hartuta apirilaren 8ko 7/2022 Legea (Honda-kinena eta Lurzoru Kutsatuena, Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko), eta 49/2009 Dekretua (hondakinak hondakindegietan biltegitratuta ezabatzea arautzen duena), Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloko eskumena duen sailaren baimena behar da hondakinak balorizatzeke edo ezabatzeke jarduerak egiteke instala-zioetan, bai eta hondakindegia sortu, handitu eta aldatzeke ere.

Bestalde, komeni da gogoratzea, batzuetan, kutsatutako lurzoruen sektoreko araudiak berak (4/2015 Legea) ezartzen duela kutsatutako lekuetarako irtenbiderik onena dela lurzoru naturalarekin kontaktuan dauden hondakinak konfinatzea, kutsatzaileak lurzorura eta lurpe-ko uretara infiltratzea saihestuko duen gelaxka bat eraikiz.

Kasu horietarako ere, Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloko eskumena duen saila da administrazio eskuduna.

7. Administrazio bakoitzak eratzen dituen planen partaidetza prozesuak abiarazi behar ditu. Hala adierazten da lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen

grado de protección y los usos propiciados, admisibles y prohibidos para cada zona. También se especifica que la ordenación de las zonas consideradas de especial protección y de mejora ambiental en el PTP deberán respetarse a la hora de proponer actuaciones y directrices en el plan especial.

Entre los objetivos que establece el PTP para los planes especiales que ordenen los parques metropolitanos está el reconducir los aspectos que puedan constituir un impacto negativo y que puedan ocasionar pérdidas en las características naturales del área y poner en marcha un plan específico para la eliminación de los efectos ambientales negativos existentes.

6. La DFB no gestiona ni otorga los permisos y licencias de vertederos. De acuerdo con la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular, el Decreto 49/2009, que regula la eliminación de residuos mediante su depósito en vertedero, las instalaciones donde vayan a desarrollarse actividades de valorización o eliminación de residuos, así como la creación, ampliación y modificación de vertederos, se someten a autorización del Departamento competente en materia de Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

Por otra parte, conviene recordar que en ocasiones la propia normativa sectorial de suelos contaminados (Ley 4/2015) establece como mejor solución para emplazamientos contaminados el confinamiento de residuos que están en contacto con el suelo natural mediante la construcción de una celda que evite la infiltración de contaminantes al suelo y las aguas subterráneas.

Para esos casos, la administración competente es igualmente el Departamento en materia de Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

7. Cada administración tiene que poner en marcha los procesos participativos de los planes que elabora. Así el Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los proce-





martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikuluan: “Lurralde edo hirigintza antolamenduko edozein figura formulatu, berrikusi edo aldatzeko hasierako erabakiarekin edo ebazpenarekin batera, parte hartzeko programa bat egin beharko da. Plan horretan, behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira, herritarrek eta elkar-teek parte hartzeko eskubidea izan dezaten”.

Dekretu horren 31. eta 32. artikuluetan plan partzialak eta plan bereziak formulatze-ko eta izapidetzeko prozedura ezarri da, jendaurreko informazioa barne.

8. Artxandako Metropoli parkearen mugak jasota zeuden dagoeneko 2006ko indarreko LPPan, eta muga horiek LPParen berrikuspen dokumentuan mantendu dira.

Artxandako eremuko garapeneko Plan Berezia onartzen den unetik aurrera, inguruko udalerriek (Sondika eta Bilbo barne), bakoitzak bere hirigintza plangintzan, azpiegitura berdearen eta oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbideen jarraipenaren diseinua kontuan izan behar dituzte Metropoli parketik bakoitzari dagokion udal mugartera, beharrezkoak diren xehetasunekin.

9. LPPren berrikuspena egiteko prozesuan, etengabeko lankidetzak bilerak egiten ari dira inplikaturik dauden udalekin, proposatutako ekintzak koordinatzeko eta horietan laguntzeko, batez ere udalaz gaitundia ekintzetan.

10. Plan bereziak eremuaren antolamendu xehatua barne hartu behar du.

Bertako landaretza potentziala berreskuratzeari dagokionez, LPPak ezartzen dituen izaera orokorreko helburuen artean (Metropoli eta Ibai parke guztietan komunak), hurrengoak aipatu behar da: bertako landaretza potentziala lehengoratzeko sustatzea (bali-

dimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística en su artículo 3 dice: “El acuerdo o resolución de inicio de la formulación, revisión o modificación de cualquier figura de ordenación territorial o de ordenación urbanística estructural deberá estar acompañado de un programa de participación en el que se establecerán los objetivos, estrategias y mecanismos suficientes para posibilitar el derecho a participar de la ciudadanía y entidades asociativas”.

En los artículos 31 y 32 de dicho Decreto se establece el procedimiento para la formulación y tramitación de los planes parciales y especiales, incluida la información pública.

8. La delimitación del Parque Metropolitano de Artxanda estaba ya recogida en el PTP vigente de 2006 y en el documento de la revisión del PTP se continúa con la misma delimitación.

A partir de la futura aprobación del PE de desarrollo del ámbito de Artxanda, los municipios colindantes, así como también Sondika y Bilbao, deberían contemplar en sus respectivos planeamientos urbanísticos el diseño de la continuidad de la infraestructura verde y de los itinerarios peatonales y ciclistas desde el Parque Metropolitano hacia cada uno de sus términos municipales con las especificidades que sean precisas.

9. Durante el proceso de elaboración de la revisión del PTP se están teniendo reuniones de cooperación continuas con los ayuntamientos implicados para coordinar y colaborar en las acciones propuestas, principalmente en las de carácter supramunicipal.

10. Es el plan especial el que debe incluir la ordenación pormenorizada del ámbito.

En cuanto a la recuperación de la vegetación potencial autóctona, hay que señalar que entre los objetivos de carácter general que establece el PTP, comunes a todos los Parques Metropolitanos y Fluviales, está el fomentar la recuperación de la vegetación potencial





bideen ustiapenarekin bateragarria izan behar da), eta dagoen zuhaitz autoktonoa babestea.

autóctona de forma compatible con la explotación de los recursos y proteger el arbolado autóctono existente.

11. LPPren 38. artikuluan (Igarobide Ekologikoak) jasotakoaren arabera, igarobideen antolamendua arautze aldera, soilik tokiko basoko zuhaitz espezieak landatuko dira, eta, horrela, tokiko basoak berreskuratzeko baso kudeaketako neurriak aplikatzea bermatuko da. Aurrekoak barne hartzen du ibaiertzetako basoak ibai eremuetako igarobideetan lehengoratzea.

11. En el *artículo 38. Corredores Ecológicos* del PTP ya se recoge que la ordenación de los corredores se desarrollará normativamente de manera que limite la plantación de especies arbóreas exclusivamente a las definidas como bosque autóctono (...) garantizando, de este modo, la aplicación de medidas de gestión forestal tendentes a la recuperación de los bosques autóctonos. Lo anterior incluye la recuperación de los bosques de riberas en los corredores en ámbitos fluviales.

12. Artxandako Metropoli Parkerako proposamena Memoriaren IV. Eranskinean dago jasota eta indarrean dagoen LPParen 25. Eragiketa Estrategikoan oinarrituta dago; eta konektibitate ekologikoaren eta igarobide ekologikoen ikuspegiarekin osatzen da.

12. La propuesta para el Parque Metropolitano de Artxanda, reflejada en el Anexo IV de la Memoria, se basa en la OE 25 del PTP vigente, y se complementa con la perspectiva de conectividad ecológica y de los corredores ecológicos.

13. Pagasarri Mendiaren Plan Berezia idazteak, izapidetzeak, egikaritzeak eta gauzatzek nahitaez eragiten die hainbat erakunde publikori, eta, beraz, adostu egin behar da. Erabakiak hala adostuta soilik ezarri ahal izango dira gero.

13. La redacción, tramitación, ejecución y materialización del Plan Especial del Monte Pagasarri afecta necesariamente a diversos organismos públicos, por lo que debe hacerse desde la base del consenso. Solo mediante la adopción consensuada de decisiones será posible que éstas puedan después implementarse.

Gaur egun, Bilboko Pagasarri Mendiaren Plan Berezi bat dago. Udalak berak egin zuen eta 2008ko ekainaren 18an onartu zen behin betiko (2008ko azaroaren 14ko BA-On, 228. zenbakian, argitaratu zen). Plan hori zenbateraino bete den baloratzeaz Bilboko Udala arduratuko da.

Actualmente, existe un Plan Especial Del Monte Pagasarri para el término municipal de Bilbao, realizado por el propio ayuntamiento, que fue aprobado definitivamente el 18 de junio de 2008 (publicado en el BOB nº 228 de 14 de noviembre de 2008). La valoración del grado de cumplimiento de este plan lo deberá realizar el ayuntamiento de Bilbao.

C- Pagasarri Parke Metropolitano osoari dagokionez, haren xedapenak eguneratuko dira, eta adieraziko da plana idazteko eta izapidetzeko ekimena BFAren ardura dela.

En lo referente a la totalidad del Parque metropolitano C- Parque Pagasarri, se actualizará sus disposiciones y se indicará que la iniciativa en la redacción y tramitación del Plan sea responsabilidad de la DFB.

14. Artxandako Metropoli Parkearen kasuan, Pagasarriko Metropoli parkeko proposamena indarreko LPParen 27. Eragiketa Es-

14. Como en el caso del Parque Metropolitano de Artxanda, la propuesta para el Parque Metropolitano de Pagasarri se basa en la OE 27 del PTP vigente, y se complementa con la





tra-tegikoan oinarrituta dago; eta konektibitate ekologikoaren eta igarobide ekologikoen ikuspegiarekin osatzen da.

visión de conectividad ecológica y de los corredores ecológicos.

15. 13. atalean adierazitakoaren arabera, eguneratu egingo dira Pagasarriko Metropoli Parkearen xedapenak, eta bertan adieraziko da Plan Berezia idazteko eta izapidetzeko eki-mena BFaren ardura dela.

15. Como se ha indicado en el apartado 13, se actualizarán las disposiciones del Parque Metropolitano de Pagasarri y se indicará que la iniciativa en la redacción y tramitación del Plan Especial sea responsabilidad de la DFB.

LPPren berrikuspenaren Ekonomia eta Finantza azterlanean ekintza bakoitza zein alditan egitea aurreikusten den adierazten da.

En el Estudio Económico Financiero de la revisión del PTP se señalan los periodos en los que se prevé llevar a cabo cada acción.

16. Baso Plan bat egiteko aukera ezarriko da idatziko den Plan Bereziaren zehaztapenetan.

16. La posible elaboración de un Plan Forestal se establecerá en las determinaciones del propio Plan Especial que se redacte.

17. Bilbo Metropolitarrako eremu funtzionalaren LPPren eremua LAGek dioten 35 udalerriek osatzen dute. Bilbo, Alonsotegi, Arrankudiaga, Ugao-Miraballes eta Arrigorriaga eremu funtzional horretan daude. Aldiz, Güeñes eta Gordexola Enkarterrietako eremuak dira, eta Okondo eta Laudio Aiara-koak; beraz, udalerri horien lurralde-antolamendua aipatutako LPPei dagokie, eta ez Bilbo Metropolitarrakoa.

17. El ámbito del PTP del área funcional de Bilbao Metropolitano abarca los 35 municipios que lo conforman, de acuerdo con las DOT. Los municipios de Bilbao, Alonsotegi, Arrankudiaga, Ugao-Miraballes y Arrigorriaga están en esta área funcional. En cambio, Güeñes y Gordexola pertenecen al área de Encartaciones, y Okondo y Llodio a la de Ayala, por lo que la ordenación territorial de estos términos municipales corresponde a sus respectivos PTP y no a este.

Nolanahi ere, proposamen horri ekin daki-oke, baldin eta mugakide diren eremu funtzional horien antolamendua bateragarri egiten bada; horretarako, plangintzak bateragarri egiteko atala berrikusiko da LPPren dokumentuan.

En cualquier caso, puede abordarse esta propuesta si se compatibiliza la ordenación de dichas áreas funcionales colindantes, para lo cual se revisará el apartado de compatibilización de planeamientos en el documento del PTP.

18. Metropoli parkea antolatzen duen Plan Bereziaren eginkizuna da eremu osoa zonatan banatzea (eremu bakoitzaren ezaugarrien arabera), eta, horrez gain, ezarri beharko dituzten zeintzuk diren babes maila, erabilera egokiak eta onargarriak eta debekatutakoak.

18. Es función del Plan Especial que ordene el parque metropolitano definir la zonificación de todo el ámbito según las características de cada zona, además de establecer el grado de protección y los usos propiciados, admisibles y prohibidos para cada una de ellas.

Gainera, LPPak ezartzen dituen izaera orokorreko helburuen artean (Metropoli eta lbai parke guztietan komunak), hurrengo aipatu behar da: bertako landaretza potentziala lehengoratzea sustatzea (baliabideen us-tiapenarekin bateragarria izan behar da), eta dagoen zuhaitz autoktonoa babestea.

Además, entre los objetivos de carácter general que establece el PTP, comunes a todos los Parques Metropolitanos y Fluviales, está el fomentar la recuperación de la vegetación potencial autóctona de forma compatible con la explotación de los recursos y proteger el arbolado autóctono existente.





19. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 6. artikulua jasotzen duenez, administrazio publikoak itun printzipioaren mende daude, eta beren artean lankidetzan aritzen dira sektore, lurralde edo hirigintza arloan.

Gainera, 13. atalean aipatu da Metropoli parkeen plan berezietan inplikaturako erakunde publikoen adostasuna eta koordinazioa behar direla plan horiek gauzatu ahal izateko.

LPParen berrikuspenaren Ekonomia eta Finantza azterlanean ere adierazten da zein diren egin beharreko ekintzen erakunde arduradunak.

20. Lehen aipatu bezala, administrazio bakoitzak eratzen dituen planen partaidetza prozesuak abiarazi behar ditu. Hala adierazten da lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikuluan: “Lurralde edo hirigintza antolamenduko edozein figura formulatu, berrikusi edo aldatzeko hasierako erabakiarekin edo ebazpenarekin batera, parte hartzeko programa bat egin beharko da. Plan horretan, behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira, herritarrek eta elkarteek parte hartzeko esku-bidea izan dezaten”.

Dekretu horren 31. eta 32. artikuluetan plan partzialak eta plan bereziak formulatze-ko eta izapidetzeko prozedura ezarri da, jendaurreko informazioa barne.

21. EAEko Energia Eolikoaren Lurraldeko Plan Sektorialaren (LPS) helburua baliabide naturalak eta tokiko baliabideak aprobetxatzeko kokapen eoliko egokiak identifikatzea, hautatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan txartatzea da, hori guztia kontuan hartuta ingurumen faktorea garrantzitsuenetakoa bat dela.

19. Como ya recoge el artículo 6 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, las administraciones públicas están sujetas al principio de concertación, cooperando entre ellas en materia sectorial, de ordenación territorial o urbanística.

Además, ya se ha mencionado en el apartado 13 que en los Planes Especiales de los parques metropolitanos se necesita del consenso y coordinación de los diversos organismos públicos implicados, para poder llevarlos a cabo.

También en el Estudio Económico Financiero de la revisión del PTP se señalan cuáles son los organismos responsables de las acciones a realizar.

20. Como se ha señalado anteriormente, cada administración tiene que poner en marcha los procesos participativos de los planes que elabora. Así el Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística en su artículo 3 dice: “El acuerdo o resolución de inicio de la formulación, revisión o modificación de cualquier figura de ordenación territorial o de ordenación urbanística estructural deberá estar acompañado de un programa de participación en el que se establecerán los objetivos, estrategias y mecanismos suficientes para posibilitar el derecho a participar de la ciudadanía y entidades asociativas”.

En los artículos 31 y 32 de dicho Decreto se establece el procedimiento para la formulación y tramitación de los planes parciales y especiales, incluida la información pública.

21. El Plan Territorial Sectorial (PTS) de Energía Eólica en la CAPV recoge que es su finalidad identificar, seleccionar e integrar en la ordenación del territorio de la Comunidad Autónoma Vasca, los emplazamientos eólicos más idóneos, para el aprovechamiento de este recurso natural y autóctono, todo ello teniendo en cuenta el factor medioambiental como uno de los más importantes.





LPSak Ganekogorta I. Taldearen barne hartzen du, eta adierazten du parke eolikoaren instalazioak, ahal dela, talde horretako kokalekuetan egingo direla. Era berean, adierazten du adierazitako lekuetan parke eolikoak egiteko ez dela garapenerako edo zehazteko beste tresnarik behar, LPSaren IV. tituluan adierazitako proiektu teknikorako tresnak izapidetu eta onartzea baino.

Ez dago LPPren esku Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialean jasotako zehaztapenak aldatzea edo ezabatzea.

El PTS incluye Ganekogorta dentro del Grupo I, e indica que las instalaciones de los parques eólicos se harán preferentemente en los emplazamientos incluidos en dicho grupo. También señala que la ejecución de parques eólicos en los emplazamientos indicados no precisará de más instrumento de desarrollo o especificación, que la tramitación y aprobación de los instrumentos de proyección técnica señalados en el título IV del PTS.

No está en manos del PTP modificar o eliminar las determinaciones contenidas en el Plan Territorial Sectorial de Energía Eólica.

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

